



Larretxea deportatuaren gorpua Euskal Herriratzeko zain omenaldietarako

■ Iazko azaroan EGUNKARIARI eskaini zion bere azken elkarrizketa

JOSE MARI LARRETXEA, Kuban zegoen deportatua, ostegunean Habanan hil bezain laster izan ziren bere jaioterrian, Hernanin, bere aldeko omenezko ekitaldiak; gorpua Euskal Herriratzeko omenaldi nagusia egingo dela iragarri dute. → 9-11

Balantzea eginez amaitu dute alderdi politikoeek hauteskunde kanpaina

Ekitaldiak baino gehiago prentsurrekoak izan ziren atzo protagonista

■ GOGOETA EGUNA denez, gaur ez da kanpainarik izango. Prentsurrekoak izan ziren atzo nagusi, hauteskunde kanpainako azken egunean. Xabier Arzalluz buruzagi jeltzalea PPrekin hitz egitearen alde agertu zen, baina alderdi honek PSOeri inkestek dioten baino alde txikiagoa aterako diola iragarri zuen. Arzalluzen ustez, Espainiako Gobernu osatzeko aukera bat baino gehiago dago. HBk ere prentsurrekoa eman zuen, eta, balantzea egitean, euskal gatazkak

kanpaina desitxuratu egin duela ziurtatu zuen. Garaikoetxea, berriz, EAJri eraso eginez aritu zen, eta jeltzaleei eman botoak «Gobernu zentralari eusteko» izan direla esan zuen. Bere iritziz, «denbora asko alferrik galdu da» kanpaina honetan. PSOEn eta IUren arteko ika-mikak azken egunera arte iraun zuen, eta Benegasek ezkerreko botoa «etxe handian, ez txikian», bildu behar dela iritzi zion. IUK ihardetsi zuen PSOerekin «dezeptionaturik» daudenen botoa nahi duela. → 5-8



Peruko hegazkin istripuan 123 lagun hil dira

■ EZ ZUTEN inor bizirik aurkitu Perun ostegun gauean izandako hegazkin istripuan. Faucett konpainiako iturriek adierazi zuten, Limatik irten zen Boeing hegazkinean 117 bidaiari eta tripulazioko sei kide zihoazen. Istripua Arequipako aireportuaren inguruan jazo zen, Limatik 1.000 kilometrora, pilotuak kontrol dorreari lur hartzeko baimena eskatu eta gero. Ezbeharra zerk eragin zuen oraindik argitu

ez bada ere, beharbada behe-laino itxiak eta haizeteek eragin zutela diote konpainiako iturriek. Hau dela eta, ikerketa zabaldu du konpainia honek. Peruko abiazio zibilaren historian inoiz gertatu den istripurik larriena da hau. Hildako 33 Txilekoak ziren, bina Boliviakoak, Belgikakoak eta Kanadakoak, bata Brasilgoa eta gainontzeko guztiak Perukoak. → 22

politika

■ Azken egunotan atxilotutako bost lagun aske dira eta besteak gaur deklaratu du Entzutegi Nazionalan → 12

gizartea

■ Alderdi politikoetako buruzagiek aho batez gaitzetsi dute INEK EGUNKARIAN publizitatea jarri ez izana

Espainiako Estatistika Erakundeak (INE) probintzia bakoitzean gehien saltzen diren bi egunkarietan baino ez du argitaratzen hauteskundearen inguruko publizitatea, baina alderdietako buruzagiek okertzat jo dute erabakia, EGUNKARIA euskaraz argitaratzen den egunkari bakarra denez. EHE erakundeak protestaldia egin zuen atzo INEK Donostian duen egoitzako atarian. → 14

ekonomia

■ Hego Euskal Herriko neurri fiskalak EBko araudira nola egokitu aztertzeke Ibarretxe eta Alli Bruselan dira → 18

kirola

■ Futbola: Athletic-Barcelona eta Merida-Reala, gaurko partiduak → 24-25

kultura

■ Gonzalez Acilu konpositore nafarraren lanaz liburua aurkeztu dute Iruñean → 29

EUSKAL HIZTEGI ENTZIKLOPEDIKOA

Egunkaria rekin

esklusiban

Gaur

26. faszikulua
390 pezeta / 16 libera